**Bide Azpiegituretako Departamentuaren aurrekontuak gaur egun indarrean dagoenarekin eta aurrekontua egiteko erabilitako irizpideekin dituen ezberdintasun esanguratsuenak azaltzen dituen txostena.**

Bide azpiegituren arloan, Gipuzkoako Lurralde Historikoak eskumen esklusiboa du; Bide Azpiegituretako Departamentuaren eginkizunak eta eskumenak, funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikulutik eta Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluko a) 8 ataletik eratorritakoak dira, alde batera utzi gabe araubide erkideko diputazioei gai honetan dagozkienak.

Ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, xedatutakoaren arabera, Bide Azpiegituretako Departamentuari honako jardun arlo eta funtzio hauek dagozkio:

a) Errepide sarea planifikatzea.

b) Lurraldeko errepide sarea egin, artatu eta ustiatzea.

c) Bizikleta bideen azpiegituren arloan:

- Errepideak egiteko proiektuetan integratutako bizikleta bideen azpiegiturak egitea, haien trazadura errepidearen plataformaren ondoan dagoenean.

- Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoan sartutako bizikleta bideen sarearen ohiko artapena, zaintza eta ustiaketa.

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Infraestructuras Viarias respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

En materia de infraestructuras viarias, la competencia que ostenta el Territorio Histórico de Gipuzkoa es exclusiva; las funciones y competencias del Departamento de Infraestructuras Viarias son fundamentalmente las que derivan del artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y del apartado a) 8 del artículo 7 de la Ley 27/1983, 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, todo ello sin perjuicio de las que en esta materia corresponden a las diputaciones de régimen común.

De acuerdo con el Decreto Foral 4/2023, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, al Departamento de Infraestructuras Viarias le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

a) Planificación de la Red de Carreteras.

b) Construcción, conservación y explotación de la red viaria del Territorio.

c) En materia de infraestructuras de vías ciclistas:

- Construcción de las infraestructuras de vías ciclistas integradas en proyectos de construcción de carreteras, cuando su trazado sea contiguo a la plataforma de la carretera.

- Conservación ordinaria, vigilancia y explotación de la red de vías ciclistas incluidas en el Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa.

d) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak erabiltzea.

2024ko ekitaldiko aurrekontua egitean, Foru Aldundiaren errepide eta bizikleta bideen sarea modu eraginkorrean mantendu, zaindu eta ustiatzeko irizpidearekin jarraitu da. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sareari dagokionez, hobetzeko proiektu jakin batzuei eta garrantzi txikiagoko jarduerei ekin ahal izango zaie.

Ohiko artapenerako errepideak zaintzeko 100. programan, ordainketa kredituak mantendu egiten dira, zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna mantentzeko eta hobetzeko.

Garrantzitsuak dira, programa honen ondorioetarako, tuneletako ekipamendua Europako zuzentarauaren eskakizunetara egokitzeko jarduketak, 2024ko, 2025eko eta 2026ko zuzkidurekin. Era berean, azpimarratu behar da udalerri txikiei foru-sareko errepideen inguruko bide segurtasuna hobetzeko ematen zaien dirulaguntzen lerroari eutsi egin zaiola, hasiera batean 2022an ezarria. Era berean, mantendu egin dira Gipuzkoa Living Lab foru sareko errepideetan hedatzeko aurrekontu partidak ere. Proiektu horrek Gipuzkoa mugikortasun seguru, iraunkor, adimentsu eta konektatuaren abangoardian jarriko du.

Premiazko Inbertsioak, Prebentzioa eta Konponketako 120. programan, handitu egiten dira prebentziozko artapenari dagozkion ordainketa kredituak, errepideen zorua birgaitzen jarraitzeko (oso emaitza onak ematen ari da), lerradurak eta ezpondak egonkortzeko, egiturak birgaitzeko eta zarataren aurkako jarduketei ekiteko, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012

d) Las demás competencias que se le atribuyan por la normativa aplicable.

En la elaboración del presupuesto para el ejercicio 2024 se ha continuado con el criterio de priorizar el mantenimiento, conservación y explotación de la red de carreteras y vías ciclistas de la Diputación Foral de una manera eficiente, sin perjuicio de abordar, en relación con la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tanto determinados proyectos de mejora, como actuaciones de menor entidad.

En el programa 100, de conservación de carreteras, los créditos de pago destinados a gastos de conservación ordinaria se mantienen, a fin de mantener y mejorar la calidad del servicio y la seguridad.

Son relevantes, a efectos de este programa, las actuaciones para la adaptación del equipamiento en túneles a las exigencias de la directiva europea, con dotaciones para los años 2024, 2025 y 2026. Asimismo, cabe destacar el mantenimiento de la línea de subvenciones destinada a municipios pequeños para mejorar la seguridad vial en el entono de las carreteras de la red foral, establecida inicialmente en 2022, así como las partidas presupuestarias destinadas al despliegue del Gipuzkoa Living Lab en las carreteras de la red foral, un proyecto que situará a Gipuzkoa a la vanguardia de la movilidad segura, sostenible, inteligente y conectada.

En el programa 120 de Inversiones Urgentes, Prevención y Reparación, se incrementan los créditos de pago correspondientes a la conservación preventiva, a fin de continuar con la rehabilitación del firme de las carreteras, que está dando muy buenos resultados, estabilizar deslizamientos y taludes, rehabilitar estructuras y abordar actuaciones antiruido de acuerdo con los mapas estratégicos y las previsiones del plan de acción aprobados de acuerdo con lo

Dekretuan ezarritakoaren arabera onetsitako mapa estrategikoekin eta ekintza planeko aurreikuspenekin bat etorriz.

establecido en la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido y en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Adierazi behar da N-I eta A-15 errepideei dagozkien ohiko artapeneko gastuak eta zarataren aurkako jarduketak Bidegi SA enpresaren kontura finantzatuko direla, Bide Azpiegituretako Departamentuak kudeatutako kontratuen esparruan. Izan ere, kanon bat ordaindu behar da abenduaren 3ko 5/2021 Foru Araua, Gipuzkoako A-15 eta N-1 errepideetan salgaien garraioan aritzen diren ibilgailu astunek errepidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ezartzen duena, onestearen ondorioz.

Hay que señalar, que los gastos de conservación ordinaria y las actuaciones antiruido correspondientes a las carreteras N-I y A-15, que están sometidas a pago de canon a consecuencia de la aprobación de la Norma Foral 5/2021, de 3 de diciembre, de implantación de un canon por uso para los vehículos pesados de transporte de mercancías en las carreteras A-15 y N-I en Gipuzkoa, se financiarán con cargo a Bidegi, SA en el marco de contratos gestionados por el Departamento de Infraestructuras Viarias.

Azkenik, errepideak egin eta hobetzeko 110. programari dagokionez, horretarako ordainketa kredituak murriztu egin dira. Horren arrazoia da GI-631 errepidearen (Azkoitia - Urretxu) 26,600 eta 27,800 KPen artean aurreratze tarte bat egiteko proiektuaren obrak 2023an amaitu zirela, baita N-636 Kanpanzarren barrena errepidea zabaldu eta hobetzeko proiektuaren eta Itxiberrieta biribilgunea osatze aldera, N-I-451 Lasarte-Oria hegoaldeko lotunea (Allerru) biribilgune goratuaren proiektuaren obrak amaitzea ere. Hala ere, 2024an zehar, GI-20 errepidean Marrutxipiko lotunearen proiektuko obrei dagozkien 2022an hasitako jarduketekin jarraituko da, eta aurreikusita dago Zarauzko saihesbideari eta GI-631 errepidea (Azkoitia - Urretxu) 22,950 eta 24,400 kilometro puntuen arteko aurreratze tartea hobetzeko proiektuari dagozkien obrak hastea.

Finalmente, en lo que concierne al programa 110, de construcción y mejora de carreteras, los créditos de pago destinados para tal fin se reducen. Ello es debido a finalización durante 2023 de las obras del proyecto de construcción de un tramo de adelantamiento entre el PK 26,600 y el PK 27,800 de la carretera GI-631 (Azkoitia - Urretxu), del proyecto ensanche y mejora de la carretera N-636 en Kanpanzar y del proyecto de glorieta elevada en el enlace sur de Lasarte-Oria N-I-451 (Allerru) para complementar la rotonda Itxiberrieta. No obstante, a lo largo de 2024 se continuará con las actuaciones iniciadas en 2022 correspondientes a las obras del enlace de Marrutxipi en la GI-20, y está previsto el inicio de las obras correspondientes a la variante de Zarautz y al proyecto de mejora de la carretera GI-631; tramo de adelantamiento entre el PK 22,950 y el PK 24,400 (Azkoitia - Urretxu).

Era berean, nabarmentzekoa da 2025. urteko eta hurrengo urteetako kredituen garrantzia Zarauzko saihesbidea eta GI-631 errepidea (Azkoitia – Urretxu) 22,950 eta 24,400 kilometro puntuen arteko aurreratze tartea hobetzeko jarduketak finantzatzera bideratuak.

Asimismo, cabe reseñar la relevancia de los créditos de los años 2025 y siguientes destinados a financiar las actuaciones correspondientes a la variante de Zarautz y a la mejora de la carretera GI-631; tramo de adelantamiento entre el PK 22,950 y el PK 24,400 (Azkoitia – Urretxu).

08 Departamentua BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA/
Departamento 08 DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Bide Azpiegituretako Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Infraestructuras Viarias | 1.332,41 | 722,50 | | | | 450,45 | | | | 2.505,35 |
| 10. Errepideak Artatzea/ Conservación de Carreteras | 4.230,64 | 5.312,59 | | | | 56.386,81 | 266,47 | | | 66.196,51 |
| 11. Errepideen Eraikuntza eta Hobekuntza/ Construcción y Mejora de Carreteras | 957,78 | 62,20 | | | | 11.062,27 | | | | 12.082,25 |
| 12. Presako Inbertsioak, Prebentzioa eta Konponketak/ Inversiones Urgentes, Prevención y Reparación | 1.198,82 | 1.147,39 | | | | 24.826,37 | 295,53 | | | 27.468,12 |
| 20. Kontratazioa, Plangintza eta Ustiapena/ Contratación, Planificación y Explotación | 1.087,56 | 82,12 | | | | | | | | 1.169,68 |
| **Departamentua Guztira Total Departamento** | **8.807,21** | **7.326,80** | | | | **92.725,90** | **562,00** | | | **109.421,90** |

